



Batikano'ko eleiz ederra.

Jaungoikoak bakarrik daki zenbait eliza izango den Erroma-n. Esku artean daukadan turistenzako “**guia**” onek 199 eliza izentatzen ditu, eta ez ditu turismoarentzat egokienak baizik aita-tzen. Alegia, gauza ikusgarriak begiratzekotan joaten direntzako elizak. Probeak, ixillak, arterik ez edukitzearen arte zoragarria duten elizatxoak ezin topa ditezke turismoaren bidetik.

Inperioak eraikitako Erroma galantaren ezer gutxi utzi digute zutik urteek eta barbaroen erasoek. V-garren gizaldetik gerorago zorigaitoko goibeak Inperioaren

aunditasuna ta arrokeria apurtuta utzi zituzten, eta ondakin oen gaiflean egin da Erroma berria, Aita Santuena.

Ez dena, jakiña. Agian, oraindik ere ikusgarriena Inperio garaiko erreusak izango dira. Kristautasuna jabetu zenean tenplo paganorik geienak eratxiak edo eliza kristau biurtuak izan ziren. “**Pantheoia**” (jainko jentil guztien tenploa), Santa Maria Martirienekoa biurtu zen, esate baterako. Beste tenplo zenbaitek zori txarra goa izan zuen, eta berriak eraikitzeko ondatuak edo cgingkizun makurretarako

A. Joxe
Azurmendi

ERROMAKO

eliza3 eliza

gelditu dira: Neptuno-ren tenploa Erroma-ko Bolsa egiña dago...

Gaurko Erroma-k agiri duen gisa Konstantino-k asia dugu. Arek altxatu zituen aurreneko Basilika bikaiñak: San Joan Letran-goia, San Paulo Extramuros, Gurutze Santu Jerusalem-goia, (Sessorio jauregi paganoaren gainean Santa Helena-k moldatutakoa).

Irakaspenetan ezeze artean ere birrindu egin nai zuen nunbait kristautasunak jentil-aroa; eta orretarako errezagoa zuen, dudarik gabe, arte berri goragokoa sertyu baiño, zegoena ondatu... Lortz kondairagilleak dionez, paganismoaren era-soak baiño arrisku gorri-gora eramango zuen aginpi-dearen laguntasun aroaren itzal beltza zetorren Elizaren



San Pablo'ren Basilika "ango argi gozo xuabeak bereala irikitzen ditu biotzaren begiak".

gaiñera, laguntza aitzakiz bere azpian estekatzeko.

Elizak beti asmatu ez bazuen, bai askotan alare. Alegia, kristau fedea baiño lehenagotik zetozen ontasanak bereganatzen ba zekien Eliza gazteak. Orri eskerrak iritxi zaizkigu gure egunetaraño, onela ez balitz aspaldian eroriak eta galduak lirakean amaika tenplo ta obra jentil, naiz eta pittin bat moldatuak egon. Maizenetan, ordea, etzuten kristauok "jainko gezurrezko ta gezurtien" tenploak Eliza biurtzeko adorarik eduki.

Millagarren urtea ezkerokoan feudalismoak begirune gutxi izan zion arteari: urimuruetako ta inguratu ahal zituzten nunaiko arri naiz arrillu guztiak karreiatu zituzten beren torreak indartzeko. Frangipane-tarrak Koliseo-an eta Palatino-an jarri zuten beren torrea, Colonna-tarrak Quirinal-ean eta Augusto-ren Mausoleo-an, Kapitolio-an Corsi-tarrak. Aita Santua Adriano-ren Mausoleo-an gelditu zen (Sant'Angelo torrea).

Egoera onek berekasa eka-rritako burruka ta liskarrek, suteak, goseteak, eta gizonen kulpagabeko porroka-tzaillerik okerrera azkenik: lurrikarak, ederki jarri zuten anartean zutik zegoen baliozko zernai ankaz gora.

Inperioan milloi ta erdi biztanle inguru izango omen ziren Erroma-n. Esklaboekin, ta probintzietako jendeekin. Aita Santuek Avignon-go desterrutik itzultzean ez omen zebillen ogei milla animatatik gora. Baiña or-

duan, ia ezezetik asi ta Errenazimenduaron gaillurreraño jaso zuten Aita Santuek Erroma-ren ederra. Erroma berria Aita Santuen obra dela esan genezake oker aundirik esan gabe. Aita Santuek, eta Bramante, Michelangelo, Bernini... jenioak! Bramante-k sartu zuen artea ta Errenazimendua klasikoaren bidetik. Arek pentsatu zuen Vaticano-ko Basilika. Eta Eliza-ko agintea bere eñerraren ederraz lilluratuta zegoela, umiltasunaz asko oroitu gabe, Alemania-ko elizaren etorkizuna, ez Aita Santuen aundi nai onekin zerikusirik gabekoa, jokatzen ari zen Europa-ko zelaietan, Lutero kausante.

Errezatzeko egiñak ote diren galdetuko luke batek Erroma-ko eliza askotan sartuta. Errezatzeko ala erakusteko. Aietan ez dago begientzat ixiltasunik, ez biotzarentzat atsedunik. San Paulo Extramuros, Konstantino-ren garaiko Eliza erreberritua, alde guztietatik berezia da eta alde onetatik bereziago. Ango argi gozo xuabeak bereala irikitzen ditu biotzaren begiak, misterio eske.

Zenbat eder eliza oetan! Emen, leku bakarrean eduki bearrean pitxi guzti oek munduaren zabaleran zergatik ez diren banatzen, galdetzen omen zuen euskaldunen batek...

Eliza ta obra oetarako materiala Inperioko obretatik ateratzen zuten. Andik atera zuen jende xebreak esaera zorrotza: "quod non fecerunt barbari fecerunt Barberini". Urbano VIII-ga-

rrenagatik (Barberini-tarrazen) esaten zuten au besteen-gatik arrazoi gelagorekin eran genezake. Baiña etzuten Barberini abizenarekin jaiotzeko zoritxarrik izan! "Barbaroak egin etzutena Barberini-tarrak egin zuten".

Jentil-aroko ondakiñen gaiñean ta ondakiñez altxatua daukagu Aita Santuen Erroma, mundu sinistunaren burua. Ugoldeka irixten dira onera mundu guztiko erromesak, Aita Santuak eta Erroma-ren izenak erakarrita. Erromes itza bera Erroma-ra zetozeri emandakoa dugu, ezpairik gabe, eta "erromeria" itza ere debotio aundiarekin ernea dugu, izatez... Vaticano-ko eliza izaten dute erromesok derri-gor ikusi bearrekoa. Eta, gutxiagotarako al da? Vaticano-ak apropos ortarakoxe egiña dirudi: Bernini-ren kolumnata biak erromesak bearskatzen dituen Basilikaren besoan antza dute.

Baiña andik datorren erromes arrituari zer ikusi duen galdetzen badiozu, geienetan ez dizu zer esan jakingo... Ez dago jakiterik. Amesetan bezala dabil an barnean jendea. Ederra izateaz gaiñera, ederra bera ikaragarriko tamaiñokoa baita: 186 metro luzeko eliza da (211 elizpearekin), 119 metro ditu (barrutik) kupulak. Kuriosoa auxe: San Markosen idazlumak 1,50 metro neurtzen du...

Ederrak, ederrago eziñekoak dira. Baiña ori bai: egunak elizaz eliza ibilli ondoren, ze pozik belaunikatuko nintzakean Arantzazukoan...